

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Aurretik azaldu dugun moduan guk sortutako web orrialdea eta sare sozialak bezeroekin harremanetan jartzeko bideak eta hauen fideltasuna lortzeko erremintak izango dira.

WEBORRIALDEA:

Gure bezeroekin harremanetan jartzeko, web orri bat izango dugu, eta haren bidez, gure produktuak eta haiek dituen ezaugarri guztiak (neurria, kolorea, prezioa) ikusi ahal izango dituzte. Horretaz gain, webgunean, gure kontaktua eskura izango dute, eta gure produktuari buruzko zalantza edo arazoren bat izanez gero, guri deitzeko edo mezu bat bidaltzeko aukera izango dute, eta gu edozein eragozpen konpontzeko prest egongo gara. Gure webgunetik, bezeroek erraz egin ahal izango dituzte erosketak, eta bidalketa doanik izango da erosketak 50 €-tik gorakoa bada.

Batzuetan, gure webgunean produktu eskusiboak jarriko ditugu (jokalariren baten zapatilak) eta eskaintzaren bat egingo dugu (gure zapatilak erosita, sarrera bat izango duzu doan emakumezkoen ligako X. futbol partidarako).

Bestalde, gure martxan jarriko dugun web orraldeak izango duen berezitasun garrantzitsuenetariko bat berezo kontu bat sortzeko aukera izango da. Kontu honek **Womgoal Club** izena izango du eta horren bitartez bezeroek hainbat abantailataz gozatuko dute. Webgunearen bidez, bezeroek doan erregistratu eta bezero-kontu bat sortu ahal izango dute, eta erregistroan beren datuak eman beharko dituzte: telefono-zenbakia, helbide elektronikoa, posta-zenbakia eta izen-abizenak. Datu horiei guztiei esker, modu errazagoan jarri ahal izango gara haiekin harremanetan, eta guztiaren berri eman ahal izango diegu, adibidez, zenbat falta den bidalketa iristeko, eta salgai jarri ditugun produktu berri interesgarriei buruzko informazioa bidali ahal izango dugu.

Horrez gain, bezeroek saio bat izango dutenez, non erosketen datu guztiak gordeta geratuko diren, erosketetan 40€ baino gehiago dituzten bakoitzean, puntuak irabaziko dituzte, trukatu ahal izateko. Puntu horiek bi modutara erabili ahal izango dituzte: lehenengoa, metatzen joatea da, nahi dutenean beste produktu bat erosi eta merkeago lortzeko. Edo, bestela, 20 puntu lortzea (puntu bakoitza dendan gastatutako 10 euro dira). Puntu horiekin zozketa batean sartu ahal izango dira, eta zozketa hori 6 hilean behin aldatuko da. Adibidez, 2025eko udan ospatuko den emakumezkoen Eurokopako motiboarekin bidaia bat zozketatuko dugu. Bidaia horretan bidaia-gastu guztiak, ostatua eta sarrera ordainduta egongo dira. Hori guztia, betiere, emakumezkoen futbolari ikusgarritasuna eta babesa emateko helburu bakarrarekin.

Bestalde, gure xedea zein den argi izanda, gure bezero kontuak eskainiko duen beste abantaila bat **emakumezkoen futbolaren egunerokotasunaren** ezagutza izango da. Izan ere, Womgoal Club-en bezeroek egunero mota guztietako berriak (partiden atarikoak, zuzeneko emaitzak, fitxaketen merkatua, besteak beste), elkarrizketak jokalariekin eta emakumezkoen futbola jarraitzeko informazio guztia eskura izango dituzte.

INSTAGRAM KONTUA:

Kontu bat izango dugu bezeroak merkatura ateratzen ditugun produktu guztien berri izateko. Gure enpresan produktu berri bat dugun bakoitzean, gure instagram kontuan aterako dugu, bezero guztiak produktu berri horri buruz jakinarazi daitezten eta gure webgunera erostera joan daitezten.



Gainera, noizean behin diru-bonueterako zozketaren bat egingo dugu, eta gure webgunean trukatu ahal izango dute, produktua merkeago atera ahal zaie.


- Produktu eskusibo bat ateratzen dugunean, adibidez, jokalaria baten zapatilak; bezeroek jokalaria horren izena, zenbakia, futbol taldea komentatu beharko dute. Komentatzen lehenak 10 €-ko deskontua lortuko du.

Era berean, emakumezkoen taldeen futbol partiduren bateko sarrerak oparituko ditugu (gure marka babesten duen jokalariren bat dagoenean), bezeroak irabazteko eta emakumezkoen kirola bultzatzeko.

Gainera, sare sozial hauen bidez beste kirol kontuekin hitz egingo dugu

IRAGARKIA:

Gure enpresak 15-20 segundoko iragarki ezberdinak sortzea erabaki du, gaur egun Instagram eta Tiktok diren pertsonak gehien erabiltzen dituzten plataformetan ager daitezten. Iragarkietan gure produktua modu paregabean nabarmenduko dugu, gure enpresari buruzko ideia ondo islatuta utziz, hau da, emakumezkoen futbola ere garrantzitsua dela, eta horretarako emakumearen anatomiara egokitutako zapaitillak erakutsiko ditugu, futbola inolako kezkarik gabe praktikatzeko aukera izan dezaten.



ORDAINTZEKO LANKIDETZA:

Era berean, hainbat marketin-agentziarekin eta Influencesekin harremanetan jarriko gara, ordainpeko lankidetzak bat lor diezaguten Espainiako moda-eragin handienetako batzuekin, eta, horrela, gure produktuaren erresina positiboa egin diezaguten, haren ezaugarri guztiak nabarmenduz eta horiek probatzean duten esperientzia pertsonala azalduz. Bideoa grabatu ondoren, influencerrak bere sare sozial guztietara igoko du, bideoan gure enpresa etiketatua aterako da eta, horrela, bideoa ikusi duten eta ideia hori interesatu zaien edo produktuari buruzko jakin-mina duten jarraitzaile guztiek gure Instagram kontuan sartu ahal izango dute oso modu errazean eta gure eduki guztia ikusi ahal izango dute (produktuak, zozketak, kolaborazioak, etab.)

DENDA BILBON:

Bezeroekin izango dugun harremana ahalik eta estuena izateko Bilbon denda bat zabaltzea pentsatu dugu. Gure asmoa da neskek eta emakumeek gure produktuak erraz eskuratu ahal izatea. Hori dela eta, gure ustez, Internet bidezko plataforma batetik aparte, hurbilagoko zerbait eskaini beharko genuke, benetan bezeroentzat eskuragarria izango dena. Gu Bizkaitik gatozenez, aukerarik onena Bilbo dela uste dugu. Bertan, erdiguneko denda (Plaza San Jose, 3) bat, Moyua Plazatik gertu, irekiko dugu, non gure bezeroek eskatu dituzten produktuak erosi, jaso edo edozein motatako galderak egin ahal izango dituzten.

Agian, etorkizunean beste denda gehiago ireki ahal izango dugu baina hasteko Bilbon denda bat izatea erabaki egokia dela uste dugu.

